

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Desagertutako espezieak tsunamien ondoren agertzen dira berriz



IKERLARI TXILETARREZ ETA ESTATUBATUARREZ osatutako talde batek 2010eko otsailaren 27an Txilen izandako tsunamiaren eragina aztertu du, eta lortutako emaitzak harrigarriak izan dira euren ustetan.


8,8 graduko lurrikarak sortu zuen tsunamiak Txileko itsasertzeko eremu zabalak jo eta animalia zein landare asko hil zituen. Tsunamiaren ondorioz itsas hondoa zeuden hainbat eremu azaleratu ziren, eta hondartza batzuk desagertu eta beste batzuk azaldu ziren.

Paisaiaren aldaketa horiekin batera aldaketa dinamikoak ere gertatu dira. Adibidez, leku zehatzetan aspaldi desagertuta zeuden landare batzuk hazi egin dira, eta azkar gainera, bi urte baino ez baitira igaro tsunamia gertatu zenetik. Gauza bera gertatu da arrain txikiekin.

Ikerlarien arabera, oso kontuan hartu beharrekoak dira tsunamiek gure itsasertzetan sortzen dituzten ustekabeak.



Korrika egiteak bizitza luzatzen du



1976AN COPENHAGEN CITY HEART proiektua abiatu zen, eta maiatzeko lehen larunbatean, EuroPrevent 2012 batzarrean, lehen emaitzak aurkeztu dituzte.

Korrika erregularoki aritzen direnen artean bizia batez beste luzatu egiten omen da: 6,2 urte gizonen kasuan eta 5,6 urte emakumeenean. Guztira, 20 eta 93 urte arteko 20.000 lagun aztertu dituzte. Emaitza onenak korrikaldiak gehiegi nekatzeraino egin ez dituztenenak izan dira, hau da, muturreko kirola egin ez dutenenak. Pertsona horiek izandako hobekuntzen artean hauek aipatu daitezke: oxigenoa hobeto xurgatzen dute, insulinarekiko sentiberatasuna igotzen da, kolesterol ona gehitu eta triglicerido maila jaisten da, eta bihotzaren erritmoa hobetzen da. Alde psikologikotik ere onuragarria da korrika egitea.



zerido maila jaisten da, eta bihotzaren erritmoa hobetzen da. Alde psikologikotik ere onuragarria da korrika egitea.

Babeslea: iametza Interaktiboa

Fukushimako erradiazioa AEBetan

Atal honetan askotan hitz egin dugu eta hitz egingo dugu Fukushima zentral nuklearraren leherketak eragindako ondorioez. Oraingoan esportatutako ondorioak dira albiste: iodo erradioaktiboa aurkitu dute AEBetako New Hampshire estatuan. Gutxi izan da eta, antza, arrisku txikikoa, baina zer gehiago ote dago? <http://ttiki.com/37674> (Gaztelaniaz)

Bere burua osatzeko gaitzen materialaren bila

Plastikoez kalteren bat jasatean, askotan ezinezkoa izaten da konponketa. AEBetako ikerlari talde batek gizakiaren azala imitatzen duen plastikoa diseinatu du, hau da, bere burua osatzeko gaitasuna duen plastikoa.

<http://ttiki.com/37675> (Gaztelaniaz)

Teilatu zurien garrantzia beroaren aurkako borrokan

Berotegi efektua handitzen den neurrian, hainbat hiri handitan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da beroaren aurkako borroka. 2011ko uztailaren 22an New Yorken izugarrizko beroa egin zuen, eta gainazal iluneko teilatuetan 77°C neurtu zituzten; gainazal argikoetan, aldiz, 50°C.

<http://ttiki.com/37676> (Gaztelaniaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16